

# *Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian*

Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos

## **Liburuaren aurkezpena**

Ikerketa honen xede nagusia da aurkeztea gaur egun Ipar Euskal Herriko gazteen euskarazko edo euskal kulturari lotu diren aisialdiak zein diren. Aisialdia denbora-tarte handia da gaur egungo gazte baten bizitzan eta gaztaroa belaunaldi garrantzitsua da euskararen geroarentzat, zeinahi hizkuntzarentzat bezala. Arrazoiak asko dira. Horien artean aipatuena biharko gurasoak izanen direla da eta hizkuntza bat edo bi beraien haurrei transmitituko dutela. Nola egin Euskal Herrian euskara lehen hizkuntza edo bi hizkuntzetarik bat izan dadin?

Erdal kultura nagusitzen da Iparraldean. Telebistan, musikan, prentsan, Interneten, gazteen erreferente kasik guziak erdaldunak dira. Aldiz euskara eskola-hizkuntza bilakatu da, hizkuntza akademikoa. Garaipen bat da segur aski, baina ikastetxetik kanpoko erabilera ezinbestekoa da hizkuntza biziartzeko. Ildo honetan, aisialdi jardueren antolaketak gero eta garrantzi gehiago hartzen du euskararen erabileran.

Ikerketaren zailtasun bat da gazte horien aisialdiak berak aztertzea. Adin horietan ohiko aisialdi egituratuetarik kanpo beren aisialdian gizarte paralelo bat sortzen dute, helduenetik ezkapatzeko, berezko jarduerak antolatzeko eta beren izate-modua sortzeko, nortasun kolektiboa egituratzeko lagun taldean. Une horiek aztertzea zaila da, pribatuak baitira. Gainera, gazteek gizarte-talde zinez heterogenoa osatzen dute. Ikerketa honetan aisialdi antolatuak, aisialdi hezitzaileak aztertzen dira bereziki.

Bigarren atalean, datu-iturriak eta metodologia aurkezten dira. Aisialdiaren eragileak laguntzen dituzten erakunde publikoen dokumentuak eta Ipar Euskal Herrian eraman diren inkesta soziolinguistikoak datu-iturri nagusiak izan dira. Baina prentsaren irakurketa, euskarazko aisialdiko edo euskal kulturako eragileen webguneak, aisialdi eta kultura publizitate-dokumentuak beste argibide zombait ekarri dizkigute. Eta gure behaketa propioa, euskaltzale eta euskal kulturazale bezala.

Hirugarren atalean, egin diren inkestak baliatuz Ipar Euskal Herriko gazteriaren argazkia ematen da. Oraindik gutiengoa (%26) mintzo da euskaraz edo gutienez ulertzen, baina gehiengoak (%65) bere burua euskalduntzat dauka. Euskal hedabideetan, telebista ikusleak eta irrati entzuleak euskara dakitenak baino askoz gehiago dira (%47 eta %38). Kultura definitzerakoan euskara lehen

mailan ezartzen dute, halere beren jarduera nagusian, zineman, euskara guti dago (%2). Kirolak maite dituzte, errugbia, futbola eta pilota ikusle bezala; ibilaldiak, txirrindula eta mendia praktika bezala.

Laugarren atalean eragile pribatuen jarduerak aurkezten dira aisialdi eremu ezberdinetan, eremu horiek hiru ikuspuntutik azter daitezkeela jakinez: hezkuntzarena, sorkuntzarena edo ekoizpenarena, eta kontsumoarena. Hona aztertu diren 12 alorren zerrenda: Bilguneak, egonaldiak eta ibilbideak, Komunikabideak, Liburugintza, Musika, kantua eta dantza, Antzerkia eta bertsolaritza, Arte plastikoak, Kirola eta zirkua, Ikusgarriak eta bestak, Zinema, Ondarea, Aisialdi zientifikoa eta ingurumena, Berezko aisialdiak gaztetxeak barne.

Elkarteen dinamika lehen indargunea da aisialdiaren alorrean. Oroitaraz dezagun aztertzen ditugun alor ezberdinetan euskal eskaintzaren iturburua elkarteena, euskal militanteena dela, ezagutza publikoa berri dela eta ez beti osoa.

Bosgarren atalean, gazteen euskarazko edo euskal kulturari lotu diren aisialdietako alor zabal horretan politika publikoak aztertzen dira. Euskararen Erakunde Publikoarena, Euskal Kultur Erakundearena eta tokiko kolektibitateena.

Bururatzean ondorioen araberako gomendioak egiten ditugu, agertu diren indarguneak azkartzeko eta ahulguneak sostengatzeko. Adibidez, “gazteria, elkarteak eta kirola” eskuduntzan daukaten tokiko elkargoek beren gain har dezatela euskarari hartze duen tokia ematea, hizkuntza teknikarien bitartez, besta batzordeetan. Lagun ditzatela aisialdian diharduten eragileak eta elkarteak, Uda Leku eta beste.

Ikerketa honen ondotik zein da gure sentimentua? Noiz nola. Batzuetan sentimentu ilunean gaude ikusiz aisialdi guzia dela ekoizpen, kontsumo eta merkatu. Eta testuinguru sozio-ekonomiko berri honetan euskarak duen leku ttipia. Halere noizean behin ikusmoldea argiago da. Gure itxaropena da Euskal Herriko gazteriarentzat aisialdia bere euskaltasuna egituratzeko parada dela. "Hizkuntza eta gozamina uztartzea" behar-beharrezkoa bilakatzen ari da euskararen jarraipena segurtatzeko.